

Mitokondrioetan 50 °C-ko temperatura neurtu dute


Gure gorputzeko temperatura 37 °C ingurukoa den arren, gure zelulen barruko organulu batzuetan oso temperatura altuak egoten direla ikusi dute:

[50 °C neurtu dituzte mitokondrioetan.](#)

Zelularen zentral energetiko gisa jokatzen dute mitokondrioek: mantengaiak oxidatzen dituzte energia lortzeko (ATPa). Ikertzaileen ustez, prozesu horrek sortzen duen beroak bermatzen du organismo osoaren barne-temperatura egonkorra odol beroko espezieetan.

Orain arte ez da izan mitokondrioen barruko temperatura neurtzeko modurik. Azken urte honetan, baina, tenperaturaren arabera fluoreszentzia ematen duten tindatzaileak garatu dituzte zenbait ikertzailek, eta haien esker egin da aurkikuntza berria.

Zientzialariek azpimarratu dute orain mitokondrioiei buruzko literatura zientifikoa berraztertu beharko dela, orain arte tenperatura fisiologikoan ikertu baitira haien propietateak.



Mitokondrioetan ATPa lortzeko prozesuan, oinarritzkoak dira haien barne-mintzak, eta, mintzen ezaugarriak tenperaturarekiko oso aldakorrak direla jakinik, mitokondrioetako mintzen ezaugarri fisiko, kimiko eta elektrikoak berraztertu beharko dira.

Bestetik, ikertzaileen arabera, litekeena da odol hotzeko animalietan eta landareetan mitokondrioak askoz ere tenperatura baxuagoetan aritzea, baina hori ere ikertu beharko dela aipatu dute. ●

ARG.: WIKIMEDIA

Bizkaldatz IX.
Literatura Saria
(2017)

“JARRAITZEKO PREST?
ORAIN ZURE TXANDA DA”

*Oinarriak barrualdean

Zaunkak

Karmele Jaio Eiguren

Bizkaia

IX Premio Literario
Bizkaldatz
(2017)

“ESTA HISTORIA
LA ESCRIBESTÚ”

*Bases en el interior

UN MERLUZO
DE ANZUELO

Alejandro Fernández Aldasoro

Bizkaia